



ORDENANTZA 3. ZK

AGURAINGO UDALA ARABAKO LURRALDEA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO
ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergari buruzko Foru Arau Partikularrean aurreikusitakoarekin bat etorriz, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga exijitzen du Ordenantza aurrekoaren arabera, eta horren zati da aplikatu beharreko tarifen taula jasotzen duen Eranskina.

2. Artikulua.

Ordenantza udalerrri osoan ezarriko da.

II. ZERGA GAIA

3. Artikulua.

1.- Zerga honen zerga gai izango da bide publikoan ibiltzeko gai diren eta trakzio mekanikoa duten ibilgailuen titularitatea, edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honi dagokionean.

2.- Zirkulaziorako ibilgailu egokia da dagokion erregistro publikoetan matrikulatu den eta horietan bazarik eman ez duen ibilgailua. Zerga honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira aldi baterako baimena eta matrikula turistikoa duten ibilgailuak.

3.- Honako hauei ez zaie ezarriko zerga hau:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuei, nahiz eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatueta ibiltzeko baimena izan.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek arrastatutako atoi eta erdi atoei, baldin eta haien karga erabilgarria 750 kilogramo baino gehiagokoa ez bada.



III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. Artikulua.

1. Honakoek ez dute zerga ordaindu beharrik izango:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsa edo herritarren babesari atxikitakoak.

b) Ordezkaritza diplomatiko eta kontsulatuaren ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatu-tako funtzionario kreditatuak, haiek dagokien lurraldeko herritar badira. Ibilgailuak kanpotik identifikatuta egon beharko dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari bai neurriari dagokionez ere.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, baita bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Osasun sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko ambulanziaz eta gainerako ibilgailuak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorraren II. eranskinaren A letrak aipatzen dituen mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, baldin eta ezinduen izenean matrikulatuta badaude.

Era berean, zergaren ordainketatik salbuetsiko dira 14 zerga zaldi duten eta elbarrien izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hori egoerak dirauen bitartean bakarrik aplikatuko da, bai dibertsitate funtzionala dutenek gidatutako ibilgailuen kasuan bai elbarriak eramateko ibilgailuen kasuan.

Aurreko bi lerroaldeetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikagarri izango onuradun diren subjektu pasiboetako ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

Hizki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, dibertsitate funtzionala duten pertsonak izango dira:

a) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 64tik beherako dibertsitate funtzionala aitortuta duen pertsona eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badago. Horrelakotzat hartuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen du) III. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.

b) Ehuneko 65eko edo gehiagoko dibertsitate funtzionala duten pertsonak.



f) Autobusak, mikrobusak eta hiriko garraio publikoari zuzendutako edo atxikitako gainontzeko ibilgailuak, baldin eta bederatzi leku baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako Ikuskatze Txartela duten traktore, atoi, erdi atoi eta makinak.

2. Artikulu honetako 1. idatz zatiko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenez gozatu ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dituzte eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hobariaren arazoia adierazi beharko dituzte. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Aurreko 1 artikuluko e) hizkiko bigarren paragrafoan jasotako salbuespena dela eta, interesdunak dibertsitate funtzionalaren eta, hala behar izanez gero, mugikortasun murriztuko gabezia egoeraren egiaztagiria aurkeztu beharko du, kasuan kasuko organoak emana. Halaber, justifikatu egin beharko du ibilgailuaren destinoa ezarpen udalean, dagokion zerga ordenantzak finkatutakoaren arabera.

2011ko urtarrilaren 1a baino lehen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita zeuden ibilgailuek, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren 2.1.e) artikuluaurreko idazketa aplikatuta, salbuespena eskatu beharko dute berriz ere, baldin eta aldeztu aurretik dagokion Udalean egiaztatu ez badute foru arau honek aipatutako artikuluari emandako idazketa berrian jasotako baldintzak betetzen dituztela.

3. Zergaren kuotaren gaineko 100eko 90eko hobaria izango dute ibilgailu historikoei edo gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna dutenek, fabrikazio-datatik zenbatzen hasita, edo, hori ezagutzen ez bada, lehen matrikulazioaren data hartuko da halakotzat, edo, halakorik ezean, dagokion mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion data. Hobari hori eskuratzeko, baimena eskatu beharko dute interesdunek, ibilgailuaren ezaugarriak adierazita.

4. Zergaren kuotaren gaineko % 15eko hobaria izango dute bost plaza edo gehiagoko ibilgailu turistiko bakar baten alde, baldin eta ibilgailu horrek 15,99 zaldi fiskal baino gutxiago baditu eta indarreko legeriaren arabera ugaritzat jotzen den familiako kideren baten titulartasunpekoak badira.

Hobari hori eskuratzeko, interesdunek baimena eskatu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak adierazita eta familia ugariaren liburua aurkeztuta.

5. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren laugarren artikuluko 6.b. idatz-zatian jasotako aukeraren arabera, % 25eko hobaria ezartzen da ibilgailu motordunentzat, % 100 elektrikoa eta hibrido entxufagarria.



Entxufatu daitezkeen ibilgailu hibridoek dagokien % 25eko hobaria lehenengo hiru urteetan aplikatuko da.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. Artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. paragrafoak aipatzen dituen erakundeak, zirkulazio baimenean ibilgailua haien izenean edukiz gero.

V. KUOTA

6. Artikulua.

1.- Tarifen taularen arabera eskatuko da zerga. Eranskinean jaso da taula hori.

2.- Ibilgailu-mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; horretaz gain, honako arauok ere kontuan izan beharko dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da turismo-ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen denean, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modelo funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoei dagozkien zergak ordainduko dituzte, honakoetan izan ezik:

Lehena.- Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobusari dagokion zerga ordainduko du.

Bigarrena.- Ibilgailua 525 kilogramoko zama erabilgarria baino gehiago eramateko baimenduta badago, kamioiari dagokion zerga ordainduko du.

b) Zerga honen ondorioetarako, moto-gurdiak motozikleten pareko izango dira, eta, beraz, zilindrada edukieraren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, arrastatze-potentzia daramanak eta atoi eta erdi-atoi arrastatuek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotore, atoi eta erdi atoi kasuan, duten edukiera dela eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako egokitzen joko dira dagokion egiaztagiria



Industria Ordezkaritzak ematen duen une beretik, edo, hala badagokio, zirkulatzen hasten direnetik.

e) Bide publikoetatik trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek eraman edo arrastatu beharrik gabe ibil daitezkeen makina autopropultsatuek traktoreei dagozkien tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Betiere, Tarifen D) letran azaltzen den "traktore" izendapen orokorraren barruan, traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreak" ere sartzen dira.

g) Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, abenduaren 23ko 2822/98 Errege Dekretuaren 11.20 artikuluan testu beraren V. eranskinarekin loturik xedatutakoaren arabera finkatuko da. Dekretu horren bidez onartu zen Ibilgailuen Araudi Orokorra.

VI. EZARPENALDIA ETA SORTZAPENA

7. Artikulua.

1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, ibilgailuen lehen eskuratze edo baja kasuan salbu. Horrelakoetan, zergaldia eskuratze hori gertatzean hasiko da, edo Trafiko Buruzagitzan baja ematean amaituko da, hurrenez hurren.

2.- Zerga zergaldiaren lehen egunean sortuko da.

3.- Ibilgailuren bat lehen aldiz eskuratzean, zergaren kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko eskuratze-egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan, edo ibilgailuaren baja ematen den egunaren arteko aldiari dagokiona, hala badagokio.

4.- Ibilgailuaren baja ematen denean, urtarrilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan ibilgailuaren baja ematen den egunera bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan zergaren kuota kalkulatzeko.

VII. KUDEAKETA

8. Artikulua.

Kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, eta, halaber, zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea, ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko Udalarari dagokio.

9. Artikulua.

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.



10. Artikulua.

Udal administrazioak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izanaren egiaztagiria.

11. Artikulua.

Zerga ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordainduko da, ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

12. Artikulua.

Matrikulazio berririk bada, edo, zergen ondorioetarako, ibilgailuaren sailkapena aldatuko duen bestelako aldaketarik bada, matrikulazioaren edo aldaketaren ondoren 30 egun balioduneko epean, interesdunek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte Udal Administrazioan, Zergaren matrikulan sartzeko:

- a) Gidabaimena.
- b) Ezaugarri teknikoen egiaztagiria.
- c) NAN/IFZ.

13. Artikulua.

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa, gidatzeko gaitasun egiaztagiria, eskatzen dutenek aurretik zerga ordaindu dutela kreditatu beharko dute.

2. Ibilgailuen titularrek, Trafikoko Buruzagitzari ibilgailuen eraberritzearen berri ematen diotenean, zerga honen ondorioetarako sailkapena aldatzen badute, bai eta transferentzien kasuan, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den helbide-aldaketaren kasuan edo ibilgailu horien bajaren kasuan ere, zerga kobratzeko aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu dutela egiaztatu beharko diote alde aurretik Trafikoko Buruzagitzari, alde batera utzi gabe kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak kudeaketa eta ikuskapen bidez ordaintzea eska daitekeela. Hamabost urte edo gehiagoko antzintasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ez dira egiaztatu beharko.

3. Trafiko buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak izapidetuko, alde aurretik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Toki Ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita geratzen diren ibilgailuek, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren 2.1.d) artikuluaurreko idazkera



aplikatzearen ondorioz, foru arau honek manu horri emandako idazketa berrian salbuespenerako ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, manu horren aurreko idazketan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko eskubidea izaten jarraituko dute, ibilgailuak arau horretan salbuespen horretarako ezarritako baldintzei eusten dien bitartean.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen azken aldaketa, bere eranskinarekin, behin betiko onartu zen 2021eko azaroaren 25ean, eta ALHAOn argitaratzen denetik aurrera sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.



TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Potentzia eta ibilgailu mota	Agurain Tarifak 2023	
a) Turismoak		
8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	23,21	Euro
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	62,68	Euro
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	132,35	Euro
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	182,31	Euro
20 zaldi fiskal baino gehiagokoak	257,51	Euro
b) Autobusak:		
21 plaza baino gutxiagokoak	153,24	Euro
21-50 plaza	218,23	Euro
50 plaza baino gehiagokoak	272,79	Euro
c) Kamioiak:		
1.000 kilogramo baino gutxiagoko karga erabilgarria	77,80	Euro
1.000 eta 2.999 kilogramo arteko karga erabilgarria	153,24	Euro
2.999 eta 9.999 kilogramo arteko karga erabilgarria	218,23	Euro
9.999 kilogramo baino gehiagoko karga erabilgarria	272,79	Euro
d) Traktoreak		
16 zaldi baino gutxiagokoak	32,51	Euro
16-25 zaldi fiskal	51,85	Euro
25 zaldi fiskal baino gehiago	153,24	Euro
e) Atoiak eta erdi-atoiak:		
750 eta 1.000 kilogramo baino gehiagoko karga erabilgarria	32,51	Euro
1.000 eta 2.999 kilogramo arteko karga erabilgarria	51,85	Euro
2.999 kilogramo baino gehiagoko karga erabilgarria	153,24	Euro
f) Beste ibilgailu batzuk		
Motor-bizikleta	8,13	Euro
125 zentimetro kubiko arteko motorrak	8,13	Euro
125 eta 250 zentimetro kubiko arteko motozikletak	13,87	Euro
250 eta 500 zentimetro kubiko arteko motozikletak	27,87	Euro
500 eta 1.000 zentimetro kubiko arteko motozikletak	55,72	Euro
1.000 zentimetro kubiko baino gehiagoko motozikletak	111,46	Euro

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala _____ onartu zen behin betiko, azken aldaketa egin ondoren, eta ALHAOn argitaratu ondoren sartu zen indarrean.